



**ARANTZAKO UDALA**

[www.arantza.eu](http://www.arantza.eu)

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 634 192  
[arantza.udala@terra.es](mailto:arantza.udala@terra.es)

## 2011KO URRIAREN 7KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2011.10.07.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.  
Zinegotziak:  
Imanol Artola Guridi jn.  
Ander Almandotz Indakoetxea jn.  
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.  
Koldobike Gorostiza Uriguen and.  
Jose Fco. Mitxelena Ordoki jn

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.- Karrikak garbitzeko makina erosteko proposamena.
- 3.-Proiektorea erosteko proposamena.
- 4.-Herriko bestaburua izendatzea.
- 5.-Juan Jose Madariaga Vergara jauna: herriko lurra erabiltzeko eskaera.
- 6.-Bortzirietako Kontziliazio Itunaren ardatzaren onespena.
- 7.-Alkatearen ebazpenak.
- 8.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2011ko irailaren 2an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

### **2.- KARRIKAK GARBITZEKO MAKINA EROSTEKO PROPOSAMENA.**

Aurreko bileran erabaki zen karrikak garbitzeko makina erosteko aurrekontuak eskatzea aukera desberdinekin.

Ikusirik aurrekontu desberdinak.

Kontuan izanik dugun egoera ekonomikoa eta bertzelako beharrak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Momentuz gaia uztea deus egin gabe.

### **3.-PROIEKTOREA EROSTeko PROPOSAMENA.**

Udalaren asmoa hauxe da: ziberespazioan filmak botatzea umeei asteburuetan. Horretarako proiektorea behar da.

Kontuan hartuz 2011ko aurrekontuan ez dela aurreikusi horretarako partidarik.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikulua xedatuari jarraikiz,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Canon enpresari erostea behar den azpiegitura filmak botatzeko.

2) Diru laguntzak lortzeko aukerak aztertzea.

3) 2011ko aurrekontuaren aldaketa hasiera batez onartzea

4) Espedientea jendaurrean jartzea, Udalaren Idazkaritzan hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek eta interesdunek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, aurrekontuko aldaketa behin betiko onetsizat joko da, aurreko lerroaldean aipatutako jendaurreko epea iragan ondoren.

### **4.-HERRIKO BESTABURUA IZENDATZEA.**

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiak bidalitako idatzia herriko bestaburua adierazteko eskatuz, 2012. urteko jaiegunen egutegia prestatzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako inauterietako ortziralara izendatzea 2012ko herriko bestaburua.

### **5.-JUAN JOSE MADARIAGA VERGARA JAUNA: HERRIKO LURRA ERABILTZEKO ESKAERA.**

Irakurri da Juan José Madariaga Vergara jaunak aurkeztutako idatzia. Bertan, lur publikoa (5. poligonoko 976. lur zatia) erabiltzeko eskaera aurkeztu du, baratzea bezala erabiltzeko.

Zinegotziak aipatu dute lur hori baino gehiago badirela probexteko emateko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Gaia aztertzea, herritarrei herri lurra uzteko aukera emateko baldintzak zehazteko.

2) Bandoa jarri hilabeteko epea irekiz herrian kokatutako herri lurak erabiltzeko eskaerak aurkeztu ahal izateko.

### **6.-BORTZIRIETAKO KONTZILIAZIO ITUNAREN ARDATZAREN ONESPENA.**

Irakurri da Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak bidalitako proposamena, Kontziliazio Itunaren ardatz bati buruz.

Zinegotziek aipatu dute hori alperreko gauza dela eta denbora galtzea.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Proposamena ez onartzea.

### **7.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (66tik 70 arte).



**ARANTZAKO UDALA**

[www.arantzau.eu](http://www.arantzau.eu)

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 634 192  
[arantzau.udala@terra.es](mailto:arantzau.udala@terra.es)

## **8.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Jaimen Iturria Mitxelena jn..

